



Etxebizitzaren salmenta %14,8 hazi zen urrira arte

EAEEn saldutako etxebizitzak

Urte bakoitzeko urtariletik urrira bitartean




Iturria: INE.

Aurtengo lehen hamar hilabeteetan etxebizitzaren salerosketa Euskadin %14,8 gehitu zen aurreko urteko aldi beraren aldean. Saldu-tako etxebizitzaren kopurua 22.000tik gorakoa izan zen, 2007ko maximoetatik hurbil, euribor moderatuaren, alokairu garestien eta lan merkatu dinamikoaren testuinguruan.

Etxebizitzaren gaineko hipoteken gorakada handia

Etxebizitzaren gaineko hipotekak

Urte bakoitzeko urtariletik urrira bitartean




Iturria: INE.

INEren datuen arabera, 2025eko urtariletik urrira bitartean 21.375 etxebizitzaren gaineko hipoteka berri eratu ziren Euskadin, aurreko urteko aldi berean baino %22,7 gehiago. Hil arteko hazkundea %21,1ekoa izan zen. Etxebizitzaren erosketak dinamismo handia erakusten jarraitzen du, abuztutik Euriborrrak gorakada txikia izan duen arren.



Orduko soldata kostu osoa igo egin zen 3.hiruhilekoan

Soldata kostua guztira
Urte bakoitzeko 3. hiru. Euroak ordu bakoitzeko



Iturria: INE.

INEk argitaratutako lan kostuei bu-
ruzko hiruhileko inkestaren datuen
arabera, **lan egindako ordu bakoit-
zko soldata kostu osoak gora
egin zuen Euskadin 2025eko hiru-
garren hiruhilekoan, orduko 24,4
eurora iritsi arte.** Horrek esan nahi
du urte arteko hazkundea %2,6koa
izan dela. Soldata kostuak sektore
guztietan igo ziren, baina bereziki
eraikuntzan (%7,9).

Ibilgailuen matrikulazioen gorakada handia

Turismoen matrikulazioa EAEn
Urte bakoitzeko urtarriletik azarora bitartean



Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

DGTren azken datuen arabera, **aza-
rora arte 31.444 auto matrikulatu
ziren Euskadin, 2024ko aldi berean
baino %20,0 gehiago.** Turismoen
matrikulazioek hiru urtez jarraian
gora egin dute, baina oraindik ez di-
ra pandemiaren aurreko zifretara
iritsi, orduan 41.000 ibilgailu inguru-
koak baitziren.